

Izena: _____ Data: _____


Betaurrekoen asmakuntza

Zer egingo lukete ondo ikusten ez dutenek betaurrekorik gabe? Ziur asko, sarritan estropezu egin eta lurrera erori. Bada, horixe gertatzen zitzaion Pisako fraide bati.

Kolpeak hartzeaz nekaturik, fraide horrek betaurrekoak asmatu zituen. Betaurrekoei esker, eskulangileek zehaztasunez egiten zituzten pieza txikiak.

Gaur egun, kolore eta material askotakoak daude. Batzuk polit-politak dira. Baina ez pentsa gizakiok bakarrik erabiltzen ditugunik! Txinako zoologiko bateko tigrekume batek ere badaramatza betaurrekoak! Albaitariak ohartu ziren tigrekumeak hurbilekoa ez zuela ondo ikusten eta ordutik betaurreko bereziak daramatza.

A zer itxura bitxia duen!



1. Nork asmatu zituen betaurrekoak?

- Pisako fraide batek.
- Txinako albaitaria batek
- Eskulangile batzuek

2. Nolakoak dira gaur egungo betaurrekoak?

.....

3. Zein animaliak eraman behar izan zituen betaurrekoak?

.....

4. Nortzuk ohartu ziren tigre- kumeak ez zuela ondo ikusten?

.....

5. Elkartu ondorengo lanbideak beren esanahiarekin.

ALBAITERIA	Denda batean lan egiten duena.
SENDAGILEA	Pertsonen osasunez arduratzen dena.
DENDARIA	Zapatak konpontzen dituen.
ZAPATARIA	Animaliak sendatzen dituen.

6. “**Fraide batek betaurrekoak asmatu zituen.**”.Baina zer da fraide bat?
Irudi egokia borobildu.



7. Esan **egia** edo **gezurra** diren ondorengo esaldiak
- Fraide batek, kolpe asko jasotzeaz nekaturik, okulistarengana joan zen.
 - Fraide batek, tigre-kume bat sendatzeko, betaurrekoak asmatu zituen.
 - Fraide batek, kolpe asko hartzeaz nekaturik, betaurrekoak asmatu zituen.
 - Fraide batek, koloretako betaurrekoak jantzi zituen.